

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure eskumuturrekoak hainbat baliabide izango ditu hura sortzeko momentuan:

- Hasteko, baliabide fisikoak izango genituzke, hauek pultsera sortzeko makinak, hau da, silikona moldatzeko makinak eta laborategian zientzilariek kimikoak lantzeko erabiliko dituzten makinak daude. Hauek, punta puntako teknologia erabiliko dute, gure bezeroei ahalik eta produktu landuena eta modernoena eskaintzeko. Gainera, gure bulegoetan ere azken belaunaldiko teknologia erabiliko dugu gure bezeroekin harremanetan jartzeko eta ahalik eta tratu hobereana emateko.
- Beste aldetik, gure web orri pertsonala izango dugu, bertan gure eskumuturrekoaren inguruko zalantza guztiak argitzeko aukera izango dute, baita bertatik erosteko ere. Gainera, bertan, bakoitzaren gustuko diseinua aukeratu ahal izango dute, hau da, kolorea. Bertan ere pultseraren funtzionamendua azalduko dugu eta gurekin lan egiten duten zientzilaria profesionalen lehen eskuko hitzak azalduko dira, gure bezeroei segurtasuna bermatzeko.
- Giza baliabideak ere izango genituzke. Gure enpresan, enpresaren sortzailek, hau da, gu eta gurekin lan egiten duten enpresetako langileak eta kolaboratzaileak arituko dira lanean. Guztira, 30 pertsona inguru egongo dira bertan lana ahalik eta hobekien eginez bezeroaren esperientzia ahalik eta hobereana izateko. Ertzainekin harreman zuzena izango dugu eskumuturreko botoiari zapaltzean, bezeroaren larrialdiari ahalik eta azkarren eta hobekien erantzuteko. Eroslea pultserak funtzionatzen ez duelaz ohartzen bada, espezialistekon harremanetan jartzeko aukera izango dute.
- Azkenik, finantza baliabideak izango genituzke. Hartzaileak nahi duen moduan ordaindu ahal izango du, bai pertsonalki gure ofizinan edo baita gure weborriaren bitartez online ordaintzeko aukera izango dute. Bestetik gure eskumuturrekoak ekoizteko dirua nondik aterako dugun azalduko dizuegu azkeneko paragrafo honetan. Gure oinarrizko ingresuak 2 izango dira batez ere, lehenengoa bankuari mailegu bat eskatuko diogu hasierako lehenengo eskumuturrekoak ekoizteko eta bestetik hainbat alderdi ezberdinetan inbertituko dugu likidezia ateratzeko eta edozein egoeraren aurrean dirua eduki dezagun arazo horri aurre egiteko. Inbertsioak bereziki inmobiliarian eta gaur egungo Caf eta Irizar bezelako akzioetan inbertituko dugu.